



**ANITURRI BHI**  
**HIZKUNTZA PROIEKTUA**  
**2016-2017**

# ANITURRI BHI. HIZKUNTZA PROIEKTUA

## AURKIBIDEA

### **1. HIZKUNTZA PROIEKTUA**

1.1. ZER DA HIZKUNTZA PROIEKTUA?

1.2. IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUA ETA HEZKUNTZA PROIEKTUA

1.3. ZER JASOKO DU HIZKUNTZA PROIEKTUAK?

### **2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK**

2.1. INGURUNE SOZIAL, EKONOMIKO, KULTURALA ETA LANEKOARI BURUZ

2.2. TESTUINGURU SOZIOLOGIA

2.3. DESKRIBAPEN FISIKOA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

2.4. EREDUEN BILAKAERA

### **3. HELBURUAK**

### **4. HIZKUNTZEN FUNTZIOAK, EZAGUTZA MAILA eta ERABILERA**

4.1. HIZKUNTZA BAKOITZAREN ESPARRUAK ETA FUNTZIOAK.

4.2. HIZKUNTZA BAKOITZAREN EZAGUTZA MAILA

4.3. HIZKUNTZEN ERABILERA ESKOLA ORDUETAN

### **5. HIZKUNTZEN ERABILERA ESPARRUKA**

5.1. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA

5.2. FUNTZIONAMENDU-ORGANOAK

5.3. DOKUMENTAZIOA

5.4. HIZKUNTZAREN KALITATEA

5.5. IKASTETXEKO PAISAIA LINGUISTIKOA

5.6. BALIABIDEAK: LIBURUTEGIA ETA JANTOKIA

### **6. HIZKUNTZEN ERABILERA HARREMANETAN**

6. 1. IKASTETXEAK DITUEN KANPO HARREMANAK

6. 2. IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

6. 3. IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

6. 4. IRAKASLE ETA IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

6. 5. LANGILE EZ IRAKASLEAK

6.6. GURASOEKIKO BILERAK

6.6.1 BANAKAKO BILERAK

6.6.2 KURTZO-HASIERAKO BILERAK FAMILIEKIN.

### **7. HEZKUNTZA-SISTEMAN SARTZEN DIREN IKASLE BERRIAK**

7.1. HIPI IKASLEEN BILAKAERA 4 URTEETAN ZEHAR

### **8. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK**

### **9. EUSKARAREN TRATAERA GIZARTE ZIENTZIAK, TEKNOLOGIA ETA ZIENTZIA MINTEGIETAN**

9.1. GIZARTE ZIENTZIAK MINTEGIA

9.2. TEKNOLOGIA MINTEGIA

9.3. ZIENTZIA MINTEGIA

### **10. HIZKUNTZAREN EBALUAZIOA**

10.1. EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

10.2. ZER EBALUATU: DIMENTSIOAK

10.3. NOIZ EBALUATU.

## **1. HIZKUNTZA PROIEKTUA**

### **1.1. ZER DA HIZKUNTZA PROIEKTUA?**

Hizkuntza Proiektua honela defini dezakegu: eskolako hizkuntza-tratamendu orokorrari dagozkion printzipioak eta bestetik ikastetxean hizkuntzak nola irakatsi eta erabili deskribatzen duten elementuak biltzen dituen dokumentua da.

Beraz, gure ikastetxeko hizkuntza-errealitatek abiatuta, eta errealitate horren hausnarketaren ondorio gisa, hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak zehaztu nahi ditugu dokumentu honetan.

### **1.2. IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUA ETA HEZKUNTZA PROIEKTUA**

Bi elementu hauek guztiz erlazionaturik daude: banatu ezin daitezkeen proiektuak dira. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barnean dauden elementuetako bat hizkuntza da; beraz, Hezkuntza Proiektuaren barruan dago Hizkuntza Proiektua, hari lotuta betiere.

Aniturri BHIn, zentroko bizimodua arautzen duen Hezkuntza Proiektua diseinatu ondoren, Hizkuntza Proiektua idazteko beharra sentitu dugu. Oinarri orokorrak finkaturik daudenez, hizkuntza-planifikazioari, ikasketetako hizkuntzei eta hizkuntzen ikasketari dagozkien atalak txertatu behar ditugu hezkuntzaren plangintzan.

### **1.3. ZER JASOKO DU HIZKUNTZA PROIEKTUAK?**

**1.** Gure ikastetxea erreferentea da euskararen normalizazio-prozesuan inguruko komunitatean; hortaz, **EUSKARA** eremu guztietan erabiltzeko eta berari buruzko jarrera baikorra sustatzeko hartu beharreko erabakiak zehaztuko ditugu Proiektuan helburu hauekin:

- Komunikatzeko tresna eragingarria izatea.
- Harremanetarako hizkuntza nagusia izatea.
- Edozein arlotan ikasketak egiteko hizkuntza garrantzitsuena izatea.
- Gure Herriko kultura-hedatzailea izatea.

**2.** Beste hizkuntzen irakaste-ikaste prozesuaren irizpide orokorrak ere zehaztuko ditugu.

- Gaztelaniaren irakaste-ikaste prozesua eta haren trataera.
- Atzerriko beste hizkuntzaren (ingelese) irakaste-ikaste prozesua eta haren trataera.

**Horrek guztiak honakoa dakar:**

- Ikastetxean erabili eta lantzen diren **HIZKUNTZEN TRATAERA** orokorra zehaztea, hizkuntza bakoitzak zer lehentasun maila duen, nolako identitatea, zer funtzio, eta zein esparrutan erabiltzekoa den bereiziz.
- Ikastetxean lantzen diren hizkuntzak era koherentean garatuko dituen **HIZKUNTZA CURRICULUMAK** sortzen jarraitzea, metodologia, ebaluazioa eta estrategia komunak bilatuz.
- Etapa guztietako irakasleak beren artean **KOORDINATZEA** metodologia-estrategiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko.
- Guztiok inplikatzeari euskararen normalizazioan eragiteko, Normalizazio Proiektuan (HNP) era aktiboan parte hartuz.

## **2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK**

### **2.1.INGURUNE SOZIAL, EKONOMIKO, KULTURALA ETA LANEKOARI BURUZ.**

Aniturri BHIra Agurain, Asparrena, Donemiliaga, Zalduondo, Iruraiz-Gauna eta Barrundia udalerrietako ikasleak datoz.

Agurain Arabako ipar-ekialdean kokatuta dago, Arabako Lautadako Kuadrillan hain zuzen ere. Euskal Herriko erdigunean dago eta Europa mailako garraiobide garrantzitsuek zeharkatzen dute, eta komunikazio bikainak ditu. Arabako Lautada meseta altu bat da, 500-600 metro ingurukoa. Zadorra ibaia inguru honetan jaiotzen da eta oso lur aberatsak dira nekazaritzarako. Eskualdea 8 udalerriz osaturik dago, eta hauek, oro har, oso biztanleria txikiko herrixkez osaturik daude. Agurain eskualde burua da, 5.000 biztanle inguru ditu, ia eskualdeko populazioaren erdia, eta bertan dago kokaturik eskualde mailako Aniturri Institutua.

Eskualdeko populazioa zahartuz joan bada ere, azken urteetan joera hau erabat aldatu egin da, are gehiago Agurainen populazioaren hazkundera dela eta. Gasteiztik eta beste zonaldeetatik jende gaztea etorri baita etxebizitza eta lan bila. Bikote gazte ugari dago seme-alabak edukitzeko sasoian. Aipatzekoa da bestalde, azken urteetan suertatu den etorkinen etorrera handia: 1.128 biztanle beste herrialdeetatik etorriak dira (Magreb, Pakistan, Hego Amerika eta Saharatik besteak beste). Sexuari dagokionez, oreka da nagusi.

Etorkinei harrera egokia egiteko, 2011tik Aguraingo Udalak elkarbizitza bultzatzeko plan parte hartzailea martxan du eta eragile desberdinak batu ditu: giza zerbitzuak, hezitzaileak, elkarteak eta herritarrak. Gure ikastetxean ere Harrera Plana garatu dugu ikasle hauek modu egokian ikastetxera egiteko. Historikoki, Arabako Lautada oso nekazaritzarako oso lurralde aberatsa izan da. Abeltzaintzak ere garrantzi handia izan du, baina bigarren mailakoa izan da. Antzina zonaldearen oinarri ekonomikoa ziren hauek. Nekazaritza ingurunean kokatuta badago ere, industria aspaldidanik izan da garrantzi handikoa. Gaur egun industriaren dibertsifikazioa (elikagaiak, logistika, birziklapena, energia berriztatzaileak, metalurgia,...) oso handia da eta populazioaren kopuru handi batek sektore horretan lan egiten du. Eskualdearen kokapen estrategikoak eta komunikazio egokiak bultzada handia eman diote garapen honi.

## **2.2. TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA**

Azken urte hauetan Arabako Lautadako Kuadrillan euskararen ezagutzak gora egin du nabarmen. Gorakada hori, neurri handi batean, eskolari zor zaio, beste faktore batzuen artean, jakina, hala nola, helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrean egindako lan eskergea. Gaur egun populazioaren % 30 inguru euskalduna da, eta % 25 inguru ia euskalduna. Hazkunde izugarria azken hamarkadetan emandakoa.

Bistan denez, gaztelera da Arabako Lautadako Kuadrillako etxeetan belaunaldiz belaunaldi transmititzen den hizkuntza nagusia. Azterketa adinka eginez gero, datu hauek askoz ere esanguratsuagoak dira. Gaur egun, Aguraingo 14 urtetik beherako biztanleen %80 euskaldun osoa baita eta %16 ia-euskalduna, eta 15-34 urte tartean %45 euskaldun osoa eta %30 ia-euskalduna. Beraz, 40 urtetik beherakoen artean euskaldun osoen kopurua %60 ingurukoa da eta ia euskaldunena %25 ingurukoa.

Baina, bertako kaleetan eta etxeetan ez da hazkunde horren eraginik nabari, hau da, gero eta euskaldun edo ia-euskaldun gehiago dagoen arren, etxeetan, familiarrean eta kalean ez da erabiltzen, ez eta belaunaldi berriei transmititzen ere. Erabilera eta ezagutza datuak ez datoz bat, ezagutzan ehuneko handiak baditugu ere, erabileran ehuneko horiek oso txikiak dira, ez dauka ia islarik ezagutzak erabileran.

## **2.3. DESKRIBAPEN FISIKOA ETA AIPAMEN HISTORIKOA**

Ikastetxea duela hogeita hamar bat urte sortu zen, Mendizabala Institutuaren sekzio moduan, Lanbide Heziketako ikasketak emateko, Moda eta Joskintza Industrialak eta Metaleko Mekanizazioa adarrak, hain zuzen ere. Ikasketa hauek A eremuan eskaini ziren. Garai horretan ikastetxea fraide klaretarren egoitzan zegoen. Ondoren, aipatutako

Lanbide Heziketarekin batera, IEE I eta IEE II ematen hasi ginen. Ikasketa hauek egitera Nafarroako Sakana bailarako herrietako ikasleak ere etorri ziren, bertan ez baitzuten IEEko ikasketarik. Inguru horretako ikasleak Lautadara ekartzeko ahaleginak eman zituen bere fruituak: horietako ikasle asko euskaldunak izanik, beraiei esker lortu genuen D ereduako ikasketak sendotzea Institutuan, Aguraingo ikastolatik zetorkigun ikasle kopurua ez baitzen nahikoa hori lortzeko. Sasoi horretan A eta D ereduetan eskaini ziren Institutuko ikasketak. Ikasle kopuruaren hazkundearen ondorioz toki gehiago behar zen. Hori dela eta, hasieran, ikastetxea bi tokitan egon zen kokaturik: fraide klaretarren egoitzan Lanbide Heziketa, eta Aguraingo gasolindegi aurrean, egungo Sarayola jatetxea dagoen lekuan, bertan zeuden Udaleko lokal batzuetan, IEE II ikasketak. Sasoi horretan ikastetxe propio izatea lortu genuen, Mendizabalarekin loturarik ez izatea, alegia.

Aipatutako bi toki horietan egon ginen bitartean, gaur egungo eraikuntza egin zen eta bertara 1991n aldatu ginen. Aldaketa honekin Institutuari Aniturri izena ezarri genion. Bertako toponimoa da, eraikuntza kokatuta dagoen lekuarena, hain zuzen ere. Orduetik hona aldaketak izan ditugu ikastetxean. LOGSE erreformaren ondorioz DBH eta (LOGSE) Batxilergoak (Osasun eta Natur Zientzien Batxilergoa, Teknologi Batxilergoa eta Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa) eta Lanbide Heziketako Ziklo Formatiboak (Goi mailako eta Erdi mailako) eskaini ahal izan genituen. Erreformaren ezarpenak Sakanako ikasleak Institutura ez etortzea ekarri zuen.

## **2.4. EREDUEN BILAKAERA**

Erreforma martxan jarri ondoren Araiako eskolatik (B eta gero D eredu), Aguraingo Pedro Lope de Larrea ikastolatik (D eredu) eta Marcos Sagasti ikastetxetik (A eta gero B eredukoak) etorri zitzaizkigun ikasleak. Jarraian, Marcos Sagasti ikastetxea desagertu zen ikastolan integratu ondoren eta Aguraingo eta Asparrenako Lehen Hezkuntza publikoan D eredu gelditu zen soilik. Honek eragin zuzena izan zuen Aniturri

BHIn, LHn B ereduaren desagertzea ekarri zuelako eta, horren ondorioz, D ereduarekin jarraitzen dugu ikastetxean.

Ikasle faltarekin batera Heziketa Zikloak desagertu ziren mende berriarekin. 2002-03 ikasturtean, DBH titulua bide arruntetik lortu ezin zuten ikasleentzat, Lanbide Hastapenerako Programen barruan Soldadura-Mekanizazioa espezializazioa jarri genuen martxan. 2005-2006 lehenengo Comenius trukea burutu genuen. Harrezkero, ELOS sarean parte hartzen dugu europar eta nazioarteko orientazioa eskainiz.

2010-11 ikasturtean eskolak IKTen aldeko apustua egin zuen eta 2012-13 ikasturtean IKT heldutasun ereduaren Oinarrizko maila lortu zuen eta hortik bi urtera Erdiko maila. 2016an Goi maila lortuta dago. Azken urte hauetan (LOE, LOCE, LOMCE-HEZIBERRI- tartean) matrikulak gora egin du eta Lautadako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ia ikaslego osoa jasotzen dugu. Hau guztia dela eta, hirugarren lerroa finkatzen ari da DBH osoan ikastetxean.

### 3. HELBURUAK

<p><b>Aniturri BHI ikastetxearen Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuen ardatza euskara izanik ere, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera bermatu nahi ditu, ikasleak eleanitzak izan daitezen.</b></p>	<p><b>Aniturri BHI ikastetxeak euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu, bai eta, horretarako, hezkuntza-komuni-atearen harremanetan euskara erabiltzea bermatu ere.</b></p>	<p><b>Aniturri BHI ikastetxeak euskararen normalizazio-prozesuaren eragile izan nahi du inguruko komunitatean, eta, horretarako, bestelako gizarte-eragile zein</b></p>
--	---	---



		<b>elkarteekin lankidetzan jarduteko borondatea du.</b>
<p>Eleaniztasunaren egitasmoa zehazteko eta garatzeko egin beharreko moldaketak zein izan litezkeen antzeman, eta bultzatu.</p> <p>Gaitasunak kontuan hartuta, hizkuntzen curriculumak sortu.</p> <p>Euskaraz eta gaztelaniaz, ahozko zein idatzizko mezuak ulertu eta ekoitzi, autonomiaz eta sormena erabilita.</p> <p>Ingelesari dagokionez, oinarrizko komunikazio-esparruetan gertatzen diren ohiko egoerak eta ahozko zein idatzizko diskurtsoak ulertu eta ekoitzi.</p>	<p>Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahalegindu.</p> <p>Ikastetxeko giroa euskalduna izateko neurri egokiak hartu.</p> <p>Ikastetxeko gobernu eta funtzionamendu-organo-etan gauzatzen diren harremanetan euskara nagusi izan dadila indartu eta bideratu.</p> <p>Ikastetxeko dokumentazioan erabilitako euskara gaurkotu, eta egoki eta zuzentasunez idatzi.</p> <p>Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko zaletasuna eta errespetua</p>	<p>Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu, eta gure kultura-ondarea ezagutu, estimatu eta defenditzen, kontserbatzen eta hobetzen lagundu.</p> <p>Euskal kultura-ekimenak sortu edo zabaldu, eta beste gizarte-erakundeek proposaturikoetan parte hartu.</p> <p>Euskararen normalizazioaren alde ari diren erakundeekin elkarlanerako</p>

	landu, eta familia euskaldunetan harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu.	harremanak ezarri. Administrazioko erakundeekin izaten diren harremanetan, euskara ahalik eta gehien erabili.
<p>Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna herriaren eta norbanakoen eskubidetzat eduki eta onartu; eskubide horretaz baliatzean, errespetuzko eta konpromisozko jokabidea agertu, eta diskriminazioak, sortuz gero, gaitzetsi eta gainditzen ahalegindu.</p>		

#### **4. HIZKUNTZEN FUNTZIOAK, EZAGUTZA MAILA eta ERABILERA**

##### **4.1. HIZKUNTZA BAKOITZAREN ESPARRUAK ETA FUNTZIOAK**

✓ **Euskara.** Ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara izango da eta egoera guztietan erabiliko da.

✓ **Gaztelania.** Ikasgai gisa landuko da.

✓ **Ingelesa.** Ikasgai gisa landu eta Etika ikasgaia ingelesez eskainiko da DBH osoan.

## 4.2. HIZKUNTZA BAKOITZAREN EZAGUTZA MAILA

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumara arautzen duen 2007ko urriaren 16ko dekretuan aipatzen den bezala, gure ikasleek honako hizkuntza maila hauek lortu beharko dituzte derrigorrezko eskolatzearen amaierarako:

**Euskararen eta gaztelanien** erabiltzaile independente aurreratuaren maila (B2) lortu beharko dute. Maila horren arabera, bi hizkuntzak egoki eta taxuz erabiliko dira hainbat egoera komunikatibotan, edonolako testuinguruetan, gero eta gradu formalagoan eta konplexuagoan:

### **Erabiltzaile independentea B2 (maila aurreratua)**

*"Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jariatasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreari buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanaz."* (1)

**Ingelesean** B1 maila lortuko dute derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan.

*"Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai*

*da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko"*

(1)

(1) Europako Erreferentzia Marko Bateratua.

Hori guztia dela eta, derrigorrezko eskolaldiaren amaieran hizkuntzarako gaitasuna behar bezala eskuratua izateko, ikasleek ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu behar dute era bateko eta besteko testuinguruetan, eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten erabilera funtzionala izan behar dute.

#### **4.3. HIZKUNTZEN ERABILERA ESKOLA ORDUETAN**

<b>ETAPA</b>	<b>EUSKARAZ</b>	<b>EUSKARA</b>	<b>GAZTELANIA</b>	<b>INGELESA (ingelese+ etika)</b>
<b>DBH (30 saio)</b>	1DBH 21 saio 2DBH 22 saio 3DBH 22 saio 4DBH 22 saio	1DBH 4 saio 2DBH 4 saio 3DBH 4 saio 4DBH 3 saio	1DBH 4 saio 2DBH 4 saio 3DBH 4 saio 4DBH 3 saio	1DBH 4+1 saio 2DBH 3+1 saio 3DBH 3+1 saio 4DBH 4+1 saio
<b>1 BATXILERGOA (34 saio)</b>	28 saio	3 saio	3 saio	3 saio
<b>2 BATXILERGOA (33 saio)</b>	27 saio	3 saio	3 saio	3 saio

<b>HIZKUNTZEN % 1 DBH</b>	% 71 EUSKARAZ	% 13 GAZTELANIAZ	% 16 INGELESEZ
<b>HIZKUNTZEN % 2 DBH</b>	% 74 EUSKARAZ	% 13 GAZTELANIAZ	% 13 INGELESEZ
<b>HIZKUNTZEN % 3 DBH</b>	% 74 EUSKARAZ	% 13 GAZTELANIAZ	% 13 INGELESEZ
<b>HIZKUNTZEN % 4 DBH</b>	% 74 EUSKARAZ	% 10 GAZTELANIAZ	% 16 INGELESEZ
<b>HIZKUNTZEN % 1 BATXILERGOA</b>	% 82 EUSKARAZ	% 9 GAZTELANIAZ	% 9 INGELESEZ
<b>HIZKUNTZEN % 2 BATXILERGOA</b>	% 82 EUSKARAZ	% 9 GAZTELANIAZ	% 9 INGELESEZ

## **5. HIZKUNTZEN ERABILERA ESPARRUKA**

### **5.1. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA**

✓ OOGren bileretan, hasierako eta bukaerako agurrak euskaraz egingo dira beti.

Ikastetxea saiatuko da bakarrik euskaraz egiten ahal den neurrian.

✓ OOGko partaide gehienek (zuzendaritza + irakasleak + ikasleak + guraso batzuk)

euskaraz baldin badakite, bileretan euskaraz parte hartzearen aldeko apustua egingo da.

✓ OOGren bileren aktak euskaraz egingo dira.

## **5.2. FUNTZIONAMENDU-ORGANOAK**

- ✓ Ikastetxeko bilera guztiak euskaraz egiten jarraituko dugu.
- ✓ Formazio-saioak euskaraz egingo dira, eta aurkeztutako materiala euskaraz egon dadin saiatuko gara.
- ✓ Gaia interesgarria denean eta euskaraz egitea ezinezkoa denean, formazio-saioak gaztelaniaz egingo dira. Beste aukerarik egon ezean, onar liteke erabilitako materiala ere gaztelaniaz egotea.

## **5.3. DOKUMENTAZIOA**

- ✓ Barruko dokumentazioa, klaustroak erabiltzen duena, euskaraz idatzita egongo da beti; beraz, sortu ere euskaraz sortuko dira ikastetxeko dokumentuak.
- ✓ Gurasoek parte hartzen duten batzordeetan aurkeztu beharreko dokumentuak gaztelaniara itzuliko ditugu (ikastetxean idazten diren dokumentu guztiak euskaraz sortuak dira).
- ✓ Ikastetxe osoan, Ingelesa ikasgairako programazioak ingelesez egiten jarraituko dugu.
- ✓ Gurasoei zuzendutako dokumentuak hizkuntza bietan idatzita egongo dira, baina betiere lehentasuna emango zaio euskarari, euskarazko testua ezkerrean edo goialdean kokatuta.

## **5.4. HIZKUNTZAREN KALITATEA**

- ✓ Denbora luzean erabiltzekoak diren testu berrietako (ziurtagiriak, bilera orokorretarako deialdiak...) hizkuntzaren kalitatea bermatuko da.

✓ Eginda ditugun testu eta idatziak aztertu eta eguneratzen dira, euskararen eta gaztelaniaren kalitateari erreparatuz.

✓ Irakasleok, hizkuntza-eredu garaile kontuan hartuta, hizkuntzen kalitatea eta aberastasuna zaintzen eta hobetzen jarraituko dugu.

## **5.5. IKASTETXEKO PAISAIA LINGUISTIKOA**

Ikastetxean dauden txartel guztiak euskaraz idatzita egongo dira. Halaber, proiektuen arabera sorturiko lanak gaztelaniaz eta ingelesez ere agertuko dira.

✓ Normalizazio batzordeak pasabideetako informazioan euskara nagusi dela bermatuko du, eta iragarki-tauletako informazioa hileroko-edo berrituko du.

## **5.6. BALIABIDEAK: LIBURUTEGIA ETA JANTOKIA.**

✓ Ikastetxeak liburutegia dauka. Liburutegiko liburu gehienak gaztelaniaz eta euskaraz egon arren, ingelesez ere badaude. Ikasle eta liburutegiko arduradunen hizkuntza euskara izango da.

✓ Jantokiko hizkuntza euskara izango da.

## **6. HIZKUNTZEN ERABILERA HARREMANETAN**

### **6. 1. IKASTETXEAK DITUEN KANPO HARREMANAK**

✓ Euskal Herrira bidaltzen diren idatziak bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) edo euskara hutsean bidaliko dira hartzailearen arabera.

✓ Euskal Herriko instituzio publikoetara euskaraz bidaliko dira idatziak.

✓ Euskal Herritik kanpora bidaltzen diren idazkiak, hartzailearen hizkuntza errespetatzeaz gain, euskaraz ere erredaktatuko dira.

## **6. 2. IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK**

✓ Irakasleen arteko harremanak euskaraz izango dira.

## **6. 3. IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK**

✓ Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahaleginduko gara.

✓ Gure inguruan nagusi den hizkuntza gaztelania dela jakinda, ikastetxean indartu behar den hizkuntza euskara da. Horretarako, ikasleek beren artean euskara erabiltzea bultzatzeko jarduerak jasoko ditu Euskara batzordearen urteko planak.

✓ Ikasleek beren artean gehienbat gaztelania erabiltzen dutela kontuan harturik, ez dugu neurri berezirik behar gaztelania indartzeko. Inoiz gaztelania erabili behar badute, erarik egokienean erabil dezaten saiatuko gara.

## **6. 4. IRAKASLE ETA IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK**

✓ Irakasleok eskola ematen dugunean (gelan), euskaraz, gaztelaniaz edota ingelesez arituko gara, arloa zein den kontuan hartuta. Irakasleok gaztelania erabiliko dugu Gaztelania ikasgaietan; Ingeles eta etika ikasgaietan, ingelesa.

✓ Irakasleok ikasleekin gelatik kanpo hitz egiten dugunean, euskaraz arituko gara.

✓ Ikasleekin ditugun harremanetan, euskara erabiliko dugu irakasleok. Beraz, ez dugu malgutasunez jokatu, eta ez dugu onartuko elkarrizketa elebidunik.



## **6. 5. LANGILE EZ IRAKASLEAK**

✓ Langile ez irakasleek (idazkariak, atezainak ) euskara dakitenez, harremanetan erabiliko duten hizkuntza euskara izango da.

## **6.6. GURASOEKIKO BILERAK**

### **Banakako bilerak**

Gurasoek, tutore edo irakasleekin biltzen direnean, aukera izango dute gaztelaniaz zein euskaraz jarduteko.

Ikasturtearen hasieran, tutoreak galdetuko dio familiari ea euskaraz dakiten. Horrela bada, gurasoekin harremanak euskaraz bideratuko dira.

### **Kurtso-hasierako bilerak familiekin**

Bilera orokorra euskaraz egiten saiatuko gara beti. Guraso guztiak euskara ulertzea zaila denez normalean gaztelaniaz bideratzen dira.

Bilera orokorra amaitu ondoren, familia bakoitza dagokion gelara joango da tutorearekin, eta taldeari buruzko hainbat gai aztertuko dituzte: ordutegia, irakasleak, taldea nola dagoen osatuta...; baina aurkezpena eta agurrak euskaraz izaten saiatuko gara eta ondoren taldearen esku geratuko da bilera euskaraz edo gaztelaniaz egingo den.

## **7. HEZKUNTZA-SISTEMAN SARTZEN DIREN IKASLE BERRIAK**

✓ Zuzendaritzak bilera egiten du gurasoekin ikasleak hezkuntza-sisteman sartu baino lehenago. Bilera horretan, saiatzen gara denok ulertzeko moduko hizkuntza erabiltzen: gaztelania, ingelesa...

✓ Sisteman sartzen diren ikasle berriekin, euskara izango da ikasi beharreko hizkuntza. Horretarako bideratuko dira ikastetxeak dituen laguntzak.

### **7.1. HIPI IKASLEEN BILAKAERA 4 URTEETAN ZEHAR**

Orientazio Mintegiak ikaslea ezagutzen duten irakasleen laguntzarekin norbanako plana diseinatuko du. Horretarako irizpide hauek hartu behar dira kontuan:

1. Egoera familiarra.
2. Hizkuntza maila.
3. Hizkuntzarekiko jarrera.
4. Ingurunearekiko ezagutza.
5. Besteekiko harreman soziala.
6. Bere nahiak, interesak, nahiak, beharrak...
7. Maila akademikoa.
8. Norberaren trebeziak eta ahuleziak.

Ikaslearen beharrak ikusita, helburuak zehaztuko dira eta horiek betetzeko ikastetxean dauden baliabideak honako hauek dira:

1. Gela arruntean indartze neurriak jasotzea:
  - Bikoizketak.
  - Laguntzako irakaslea gelan sartzea edo ikaslea gelatik ateratzea.
  - Ikasgaiako irakasleak edukiak, ebaluatzeko irizpideak eta materiala egokitzea.
2. Talde osagarrian kokatzea
  - Metodologia berritzailea erabiliz, saiatu helburuak betetzen

Kontuan izanda HIPI programa urtebetekoa dela bakarrik eta ikasle batek hizkuntza bat menperatzeko 5 urte behar dituela (Hezkuntza Sailaren arabera), baliabide hauek eskasak izanik, ia ezinezkoa izango da ikasle horiek gela arruntera itzultzea eta DBHko ziurtagiria lortzea, ez badu hurrengo urteetan HIPI jarraipenik.

Kasu gehienetan, hezkuntzan jarraitzeko aukera bakarra Oinarrizko Lanbide Heziketa batean sartzea izan ohi da.

3. Kanpoko bitartekoekin koordinazioa
  - Gazte-lekuak "Kalekatu" programa eskaintzen du: ikasle hauek bertako begiraleekin eskolarako lanak euskaraz egiteko laguntza jasotzeko aukera dute.

- ALAI Elkartea. Etorkin elkarte honek laguntza ere eskaintzen die hainbat esparrutan.
- Hurrengo ikasturtera begira, BIDEFLAGUNA proiektua abian jarri nahi dugu, gure ikasle askok arazo ekonomikoak eta familiarak baitituzte. BIDEFLAGUNAK eskolarako behar diren lan ohiturak bereganatzeko aukera ematen die.

## 8. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

- ✓ Hezkuntza Premia Bereziak eta Norbanako Curriculum Egokitzapena duten ikasleek euskaraz jasoko dute beti laguntza.

## 9. EUSKARAREN TRATAERA GIZARTE ZIENTZIAK, TEKNOLOGIA ETA ZIENTZIA MINTEGIETAN

### 9.1. GIZARTE- ZIENTZIAK MINTEGIA

	ULERMENA	ADIERAZPEN IDATZIA	AHOZKOTASUNA
GEOGRAFIAN ETA HISTORIAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Ikasketa kooperatiboa lantzen denean, testuen irakurketa partekatua egitea.</li> <li>· Jatorrizko testuak irakurtzea eta ulertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Idatzizko txostenak egitea.</li> <li>· Testu iruzkinak egitea.</li> <li>· Arte-lanen iruzkinak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Txostenen ahozko aurkezpenak egitea.</li> <li>· Talde eztabaidak egitea gertakizun historikoen arrazoiak eta ondorioak adosteko.</li> </ul>

FILOSOFIAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>Autoreen jatorrizko testuak irakurtzea eta ulertzea.</li> <li>Informazioa ulertzea eta aukeratzea txostenak osatzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idatzizko txostenak egitea.</li> <li>Testu iruzkinak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Haien iritzia ozenki azaltzea teoria filosofiko desberdinen inguruan.</li> </ul>
MUSIKAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioa ulertzea eta aukeratzea txostenak osatzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idatzizko txostenak egitea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Txostenen ahozko aurkezpenak egitea.</li> </ul>
EKONOMIAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasketa kooperatiboa lantzen denean, testuen irakurketa partekatua egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idatzizko azalpenak egitea egoera ekonomiko desberdinak deskribatzeko eta azaltzeko.</li> <li>Programa ekonomiko bat idaztea taldetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde eztabaidak egitea ariketen erantzunak adosteko.</li> <li>Programa ekonomiko baten ahozko aurkezpenak egitea.</li> </ul>
GORPUTZ	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Idatzizko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde eztabaidak</li> </ul>

HEZKUNTZAN	ulertzea eta aukeratzea txostenak osatzeko	deskribapenak eta azalpenak egitea.	egitea jardueren estrategiak adosteko Ikasleek prestatutako ariketen ahozko azalpena egitea.
------------	--	-------------------------------------	---

## 9.2. TEKNOLOGIA MINTEGIA

ZER	NOLA		
	IKT	PLASTIKA	TEKNO
Ahozko adierazmena	_____	Aukezpenetan lantzen da.	Aurkezpenak egiten dituztenean edo galderei erantzuten dutenean. Ahozko azterketak ere egiten dira (BATX) eta notarako baloratu
Idazmena	Adostu beharreko zerbait dela uste dugu. Lanak edo azterketak zuzentzerako garaian irizpide berdina izan beharko genuke denok: Natur, Teknologia,		

	Gizarte...nola baloratu edo zigortu egindako akats ortografikoak		
Irakurriaren ulermena	Azterketen bidez, zeharka bada ere, egiten da		
Entzundakoaren ulermena	_____	Bideoak batzuetan lantzen dituzte.	Bideoak: euskaraz, gazteleraz eta ingelesez ikusten dituzte eta ulermena landu (BATX).

### 9.3. ZIENTZIA MINTEGIA

	ULERMENA	ADIERAZPEN IDATZIA	AHOZKOTASUNA
BIOLOGIA ETA GEOLOGIA	Ikasketa kooperatiboa lantzen denean, testuen irakurketa partekatua egitea eskatzen zaie. Informazioa irakurtzea eta ulertzea eskatzen zaie. Azalpenak entzuten direnean eta bideoak ikusten direnean edukia ulertzea eskatzen zaie.	Idatzizko txostenak eta horma irudiak egitea eskatzen zaie.	Txostenen eta lanen taldeko ahozko aurkezpenak egitea eskatzen zaie. Problematika ezberdinen talde eztabaidak egitea eskatzen zaie.
FISIKA ETA KIMIKA	Buruketak behar bezala ebazteko informazioa ulertu eta datuak	Oinarrizko hiztegi teknikoaren erabilpena	Oinarrizko hiztegi teknikoaren erabilpena

	interpretatzea eskatzen zaie.		
MATEMATIKA	Buruketak behar bezala ebazteko informazioa ulertu eta datuak interpretatzea eskatzen zaie.	Oinarrizko hiztegi teknikoaren erabilpena	Oinarrizko hiztegi teknikoaren erabilpena

## 10. HIZKUNTZEN EBALUAZIOA

Ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara izanik, ezinbestekoa da irakasle guztiek parte hartzea euskara irakasten eta prozesua ebaluatzen.

### 10.1. EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

Gaur egun, hizkuntzei buruzko hausnarketa teorikoari garrantzi handia ematen diogun arren, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren beste arloak ere lantzen hasi gara. Ezagutzen eta eduki kontzeptualen ebaluaziotik konpetentzien ebaluaziora doan bidea jorratu behar dugu. Aldaketa horri erantzuten dion ebaluazioak ezaugarri jakin batzuk izango ditu:

**Integrala:** gaitasun komunikatiboaren osagai guztiak (ahozkoaren ulermena, idatziaren ulermena, mintzamena, idazmena eta ahozko elkarreragina) kontuan hartzen dituena.

**Hezitzailea:** Ikasleek ikaste-prozesuan izan dituzten arazoak eta egin dituzten aurrerapenak identifikatu ondoren, irakasleen praktika ikasleen behar errealetara egokiarazten duena.

**Testuinguruan egoki kokatua:** komunikaziorako testuinguru jakin batean txertatuta egonik, hizkuntza elementu formal abstraktutzat ebaluatzen ez duena.

**Askotarikoa:** egoera eta ikasleen ezaugarrien arabera, ebaluatzeko hainbat tresna erabiltzen dituena.

**Partekatua:** ikasleen eta irakasleen arteko elkarreragina ardatz izanik, ikasleek parte hartzea dakarrena.

## **10.2. ZER EBALUATU: DIMENTSIOAK.**

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna aztertzean aipatu dugun bezala, hizkuntza guztiak ebaluatzean, bost DIMENTSIOAK hartuko ditugu kontuan: ahozko ulermena, ahozko adierazpena, idatzizko ulermena, idatzizko adierazpena eta elkarreragina.

## **10.3. NOIZ EBALUATU.**

Arlo eta ikasgai guztietan bezala, ezinbestekoa da hiru urratsetan egitea hizkuntzen ebaluazioa:

- Hasierako ebaluazioa: Ikasleak aurreko zer ezagupen dituen baloratzen duena.
- Ikaste-prozesuaren ebaluazioa: Ikaste-prozesu osoan zehar egiten dena, eta ez azken mementoan soilik. Ebaluazio hezitzailearen markoan, prozesu horretatik jasotzen diren datuen bidez, beharrezko aldaketak ezar litezke heziketa-prozesuan.
- Azken ebaluazioa: Unitate tematiko bat amaitzean edo denbora jakin batean aplikatzen dena. Ezaugarri hau du: neurgarria da, ebaluazio mota horretan ikasle bakoitzari zenbaki bat esleitzen baitzaio eskala jakin batean.